

EGUNEKO GAIA 03 KORRIKA

Arabari gero arte esanda, Korrikaren herensugeak Sakana zeharkatu du


Bosgarren eguna izan zuen atzo Korrikaren 24. edizioak eta dagoeneko 1.000 lekuko hartzetik gora egin dira euskararen aldeko ekimenean. Mendialdetik eta Lautadatik egin zuen Arabako lehen igaraldia eta Sakanatik itzuli zen Nafarroara. Goizaldean Gipuzkoan izango da gaur Korrika eta, gero, Baztandik Lapurdira igaroko da.

Garazi CASTAÑO | LEKUNBERRI


Gaueko ordu txikietan egin zuen atzo salto Arabara Korrikak. 24. edizioak laugarren herrialdea zapaldu zuen bosgarren egunean. Moreda Araba izan zen lehen herri arabarra lasterketari harrera egiten, eta Oionetik egin zuen aurrera, Mendialdea zeharkatuz. Lautadara iritsi zen ostean eta, handik, Nafarroara itzuli zen Korrika, Sakanan barrena. Iluntzean Leitzaldetik egin zuen iparraldera, Gipuzkoan lehen aldiz sartzeko. Tolosaldean heldu zen eta Buruntzaldean amaitu zuen eguna.

GARAK Egiletan egin zuen atzo bat Korrikarekin. Asteburua amaitu berri, furgoneta eta autokarabana gutxiago ikusten ziren bide bazterretan, baina Korrikaren atzetik jende andanak jarraitu zuen lasterka. 957. lekuko hartzearen puntuak zain ziren Dulantziko Haize dantza elkarteak kideak. Gorputzeko ajea kentzeko modurik onena kirol gehiago egitea omen. Haize taldekoek hala frogatu zuten atzo goizean, asteburua Valentzian emanaldiak ematen pasatu ostean, goiz jaiki eta Egiletako sarrerara gerturatu baitziren. 08:19an zegoen aurreikusia bertatik igarotzea Korrika eta fin ibili ziren furgonetetako kideak haien eginkizunean.


Euskara denok gara Euskara denona da, eta horixe da aurtengo Korrikan etengabe aldarrikatzen ari dena AEK: euskararen ezagutzak unibertsala behar duela izan. Eretxundik Dulantzira bidean Garabide Kultur Elkartek hartu zuen



Lasterkari bereziak Irurtzenen. Aitor KARASATORRE | FOKU



Lautada eta Sakana josi zituen atzo Korrikak. Raul BOGAJO | FOKU



Korrikak Sakana gurutzatu zuen atzokoan. Aitor KARASATORRE | FOKU



Agurainen eta beste hamaika herritan bezala, harrera beroa egin zioten Korrikari Zalduondon. Raul BOGAJO | FOKU

lekukoa. Eta kasualitateak kasualitate, eskualde hartako furgonetako hizlaria, Maite der Sasieta, elkarteko kidea da. Hark azaldutako moduan, Garabide hizkuntza gutxituak laguntzea xede duen elkarte da: «Euskararen biziberritze esperientzia partekatzen dugu munduko beste hizkuntza gutxitu batzuekin, haien prozesuan laguntzeko». Urtero erosten dute lekuko hartze bat, «tokatzen den lekuan». Zorionekoa da Sasieta, aguraindarra baita bera; hori bai, eginkizun bikoitza egokitu zitzaion atzokoan.

Furgonetan zebilen bera, eta parean, lekukoa eskutan eta korrika, bere kideak. Ekuatore Gineatik etorritako *bubi* etniako lagun batek hartu zuen lekukoa. Sasieta azaldu zuenez, «joan den urteko udazkenean Aditu ikastaroa egiten egon zen; orain, kasualitatez, Euskal Herrian zegoen eta ez du bitan pentsatu». Ponez hartu zuen eskurik esku dabilen mezuaren gordailua, «*Bubi, bubi, bubi!*» eta «Bubiak ere euskaraz!» oihuak entzun ziren furgoneta barrutik zein kanpotik. Harekin batera Maroko iparraldeko Rif inguruak amazig lagun batek hartu zuen lekukoa. Korrika «hizkuntza gutxituen bidelagun» dela aldarrikatu zuten.

Zetak, txalapartak eta AHTrik ez Ziordiatik itzuli zen Korrika Nafarroara. Sakanaren txanda zen atzo eta, tenperatura freskatu bazen ere, eguzkia bidelagun izaten jarraitu zuen Korrikak. Sakanako herriak zeharkatu zituzten ehunka lasterkari euskararen aldeko arrasto koloretua utzi zuten bidean. AHTaren aurkako banderola eta mezuak ez

RIKARDOREN OPARIA

Uharte-Arakileko Rikardo agertu da. Makila bat eskuan, abarkak eta artilezko galtzerdiak jantzita, eta beste eskuan, gazta egiteko eskuz egindako tresna bat. Furgonetako kideei eman die opari moduan eta makilarekin kolpean erritmora jarraitu du tipi-tapa.

Hizkuntza propioen alde egin dute estaturik gabeko nazioek

Hainbat lekuko hartzeren inguruetara ikurrina eta nafar bandera erraldoiak eraman dituzte Gure Eskuko kideek Korrikako ibilbidean zehar. Atzokoan ordea, haien txanda izan zen. Eginon, 999. lekuko hartzea zen Gure Eskurena, baina protagonismoa estaturik gabeko nazioekin partekatu zuten. Galiziako eta Herrialde Katalanetako ordezkariekin batera egin zuten Korrika, hizkuntza gutxituen defentsan.

NAIZ Irratiko Zalaoa Badiola kazetaria Eginon izan zen. Bertan ziren Gure Eskuko, Omnium Cultureko, Via Galegako, bai eta AEK-ko eta Korrikako ordezkariak ere, furgoneta eta lasterkariak noiz iritsi zain. Une hori probestu zuen Josu Etxaburu Gure Eskuko

ordezkariak atzoko ekimenaren helburua azaltzeko: «Gure herriok eta hizkuntzek aurrera egin dezaten erabaki nahi dugula, eta horretarako erabakitzeko eskubidea behar dugula». Harrotasuna aziparratu zuen eledunak. Alde batetik, Galiziako eta Herrialde Katalanetako lagunak ondoan izateagatik. Eta bestetik, «harro, lau haizeetara adierazteko bagarela estaturik gabeko hainbat nazio, eta hainbat eta hainbat nazio hizkuntza baten jabe garena».

Omnium Cultureko Marta Garsaballek «autodeterminazioarako eskubidea eta gure hizkuntzen defentsarako eskubidea» aldarrikatu zituen, «bata zein bestearekiko arrotza den estatu baten aurrean». G.C.

ziren falta izan Sakanako ibilbide osoan.

Aurtengo Korrikako kantua ondu du Zetak-ek. Taldearen buru den Pello Reparazek Etxarri eta Arbizu artean hartu zuen lekukoa. Korrikak eskerak eman zizkion «euskara hauspotzeagatik zure lanekin, behar baitugu artisten partetik, eta esparru guztietan goigoian ikustea euskara». Bere

kontzertuetan AEKri lekua eskaini izana ere azpimarratu zuten furgonetatik. «Herensu-geren itzala» esanez hasten da Maixux eta Erramunekin sortutako abestia. Euskararen aldeko lasterketak herensuge baten moduan egin zuen sigisaga Sakanako herrietatik aurrera, Beriainen magalpean. Txalaparta doinuek furgonetaren musikaren konpasari ja-

rraitu diote Lakuntzan, Arruazun eta Ithararren.

Irurtzunen hartzak furgonetako kideak zirrikatu zituen eta ostein Sakanari agur esan zion Korrikak, Larraundik barrera. Allitik iritsi zen Korrika Lekunberrira eta Araitz-Betelutik Tolosaldera egin zuen salto. Lizartza izan zen Gipuzkoako lehen herria Korrikari harrera egiten.

